

Euskalduntze eta alfabetatzerako diploma

Pello Jauregi

Euskalduntze eta Alfabetatzerako Diploma 1992ko urrian zabaldu zen lehenengo aldiz. Ikasketa hauek Euskal Kulturaren Batzarraren (EKBren) inguruan biltzen ziren hainbat helduen euskalduntze eta alfabetatzerako erakunderen, eta batez ere AEKren inizatibaz sortu zen. Garai hartan ez zegoen komunikaziobide onik administrazioaren eta AEKren artean. Euskaltegi hauek euskalgintzan garatzen zituzten lan-ildoak kontuan hartuko lituzkeen formazio-egitaraua bultzatu nahi zuten, beren irakasleen formaziorako baliagarria izan zedin, batetik, eta homologaziobide, bestetik.

EKBren arduradunak EHUko Hezkuntzaren Teoria eta Historia Saileko arduradunekin harremanetan jarrita, elkarrekin adostutako ikas-egitaraua prestatu ondoren Unibertsitateko Gobernu Batzordean aurkeztu eta 1991ko apirilean jaso zuten diploma antolatze baimena. Harrez geroztik, sei diploma antolatu dira, lehenengo biak bi urtekoak eta gainerakoak hiru urtekoak.

Ikas-egitaraua

Lehenengo bi diplometan landutako ikas-egitaraua edukiz egokitu eta kreditu-kopurua handituz, hirugarren diplomatik aurrera 45 kredituko ikas-egitaraua finkatu zen honako eduki hauekin:

1. IKASBIDEAK

- 1.1. Helduen ikasketa-sistemen ezaugarriak (2 kreditu).
- 1.2. Kurrikuluaren antolaketa eta ebaluazioa (3 kreditu).
- 1.3. Metodo komunikatiboa (3 kreditu).
- 1.4. Metodo naturala: estrategia hartzailea (3 kreditu).
- 1.5. Sugestopedia (3 kreditu).
- 1.6. Autoikaskuntza (3 kreditu).
- 1.7. Testuaren pedagogia (3 kreditu).
- 1.8. Kulturgintza eta eginkizunetan oinarritutako ikasbidea (3 kreditu).

2. TALDE PSIKOLOGIA

- 2.1. Talde fenomenoak eta hizkuntza: eskuhartze estiloak (5 kreditu).

3. PSIKOLINGUISTIKA

- 3.1. Lehenengo eta bigarren hizkuntzaren jabekuntza (3 kreditu).

4. SOZIOLOGIA

4.1. Hizkuntzen berreskurapenari buruzko ikuspegi ezberdinak eta hel-
duen irakaskuntzaren egitekoa (5 kreditu).

4.2. Hizkuntza eta kultura (2 kreditu)

5. IKERKUNTZA

5.1. Ikertzeko estilo ezberdinak (4 kreditu).

5.2. Ikasgelan egindako ikerketa praktikoa (3 kreditu).

Irakasleak

Irakaskuntza-alorra EHUko irakasle eta kanpoko adituen arteko orekaz
banatu da. Hona hemen sei urte hauetan irakasle gisa jardun dutenen
zerrenda:

Koldo Zuazo (EHU)	Octavi Roca (Bartzelonako CODI 7ko zuzendaria)
Iñaki Camino (EHU)	Rosa Ramos (Euskara Teknikaria)
Jose Valencia (EHU)	Isabel Millet (Sugestopedian aditua)
Erramun Baxok (EHU)	Daniel Hermosilla ("Haizea" psikologia taldeko kidea)
Iñaki Pikabea (EHU)	Juxto Egaña (HABE)
Izaskun Etxebarria (EHU)	Lurdes Elozegi (HABE)
Jose Luis Alvarez (EHU)	Alan King ("Eire" ingeles ikastegia)
Lore Erriondo (EHU)	Juanjo Agirrezabala (Lasarte-Oriako PATEko kidea)
Jose Martin Apalategi (EHU)	Jürgen Wolf (TANDEM Fundazioko kidea)
Pello Jauregi (EHU)	Joseba Ezeiza (Legazpi 6)
Xabier Isasi (EHU)	Patxi Iñarra (AEK)
Adolfo Rodriguez (EHU)	Gontzal Agote (AEK)
Felix Basurko (EHU)	
Antonio Viñao Frago (Murtziako Unibertsitatea)	

Funtzionamendua

Diploma hiru ikasturtetan antolatzen da. Lehenengo bietan eskolen
bidez, ostiral goizetan lau orduko saioak antolatuz, urritik ekainera bitar-
tean. Hirugarren urtea, ikerketa praktikoa egiteko erabiltzen da tutoretza
sistemaren bidez. Hirugarren urtera iritsi ahal izateko eskolen asistentzia
%80koa baino txikiagoa ezin da izan eta gai bakoitzeko irakasleek eska-
turiko lanak garaiz eta taxuz eginak entregatu behar dituzte ikasleek.
Aurrebaldintza hauek betez gero, diploma gainditzeko azkeneko froga
dute oraindik ikasleek: epai-mahai baten aurrean memoria bat aurkeztea.
Memoriak ikerketa praktikoaren informea txostena jaso behar du.

Orain arte aurkeztu diren memoria batzuen gaiak honako hauek izan dira:

- Entzumena lantzen
- Euskaldun berriak eta kale erabilera
- Ikasgelan mintzamen trebetasunean ematen den desoreka beste trebe-
tasunekiko
- Ikasteko estilo ezberdinak
- Ikastaldeetan sortzen diren egoera estresagarriak eta balizko konponbi-
deak: sugestopediaranzko hurbilpena

- Behe-urratsetako barnetegia sugestopedian oinarrituta
- Kulturgintzaren sistematizazioaren eragina euskararen erabileran
- Urrutiko ikaskuntza: esperientzia baten azterketa
- Bideoaren erabilera didaktikoa
- Ikasleen euskaltzaletasuna bultzatzen
- Euskal ingurunearen falta eta euskalkiak sorturiko arazoak gainditzeko estrategia

*Ikasleen kopurua eta
soslai*

Ondorengo taulan (.1) diploma bakoitzean zenbat ikasle aritu den eta beren ikasketa maila zein nolakoa zen zehazten da. Eta hurrengoan (.2) urtez urteko ikasleen bilakera jasotzearekin batera ikasle horien jatorria agertzen da:

.1:

Ikasturtea	Lizentziatuak Diplomatuak	UBI, LH2 25 urteko froga	Entzuleak	Guztira	Ehunekoak
92-94	8	7	2	17	7,9
93-95	3	9	3	15	7
94-97	10	28	17	55	25,6
95-98	7	25	15	47	21,9
96-99	9	23	16	48	22,3
97-00	1	24	8	33	15,3
Guztira	38	116	61	215	100
	%17,7	%53,9	%28,4	%100	

.2:

Ikasturtea	AEK	Beste erakundeak	Guztira
92-94	16	1	17
93-95	13	2	15
94-97	48	7	55
95-98	37	10	47
96-99	41	7	48
97-00	31	2	33
Guztira	186	29	215
	%86,5	%13,5	%100